

ZENBAIT ESPEZIALITATE IREKITA,
**BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN ETA
LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAN**

Eskabideak aurkezteko epea: martxoaren 10etik 16ra, biak barne

48/2022 Ebazpena, martxoaren 7koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Enpresen administrazioa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Industria analisisa eta kimika
- Industria analisisa eta kimika, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Irudi pertsonaleko aholkularitza eta prozesuak
- Irudi pertsonaleko aholkularitza eta prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ostalaritza eta turismoa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Informatika
- Informatika, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Merkataritzako antolaketa eta kudeaketa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ibilgailuen mantentze-lanen antolaketa eta prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak
- Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema energetikoen antolaketa eta proiektuak
- Sistema energetikoen antolaketa eta proiektuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Nekazaritzako ekoizpen prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Prozesu diagnostiko klinikoak eta produktu ortoprotesikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Elikagaien industriako prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Komunikazioaren prozesuak eta bideak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Zurgintzako eta altzarigintzako prozesu eta produktuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema elektronikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Esku-hartze soziokomunitarioa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

591 - Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa

- Ekipo elektronikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Estetika, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Zurgin-lanen eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Bero eta fluido ekipoen instalazioa eta mantentze-lanak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Instalazio elektroteknikoak
- Instalazio elektroteknikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ibilgailuen mantentze-lanak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak
- Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Eraikuntza proiektuen bulegoa, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Elikagaien elaborazioko eragiketa eta ekipamenduak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Nekazaritzako ekoizpeneko lan eta ekipoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak
- Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Administrazio kudeaketako prozesuak, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Administrazio kudeaketako prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema eta aplikazio informatikoak
- Sistema eta aplikazio informatikoak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Soldadura
- Irudi eta soinuko teknika eta prozedurak
- Irudi eta soinuko teknika eta prozedurak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Osasun eta laguntza prozedurak

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Enpresen administrazioa, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Irudi pertsonaleko aholkularitza eta prozesuak
- Informatika
- Ibilgailuen mantentze-lanen antolaketa eta prozesuak
- Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak
- Nekazaritzako ekoizpen prozesuak
- Nekazaritzako ekoizpen prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak
- Gorputz hezkuntza
- Gorputz hezkuntza, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

591 - Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa

- Estetika
- Instalazio elektroteknikoak
- Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak
- Nekazaritzako ekoizpeneko lan eta ekipoak
- Administrazio kudeaketako prozesuak, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Administrazio kudeaketako prozesuak, ingeleseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Soldadura

Eskabideak eta agiriak **bakarrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko "Tramitatu"** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak egin behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NAN**aren edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **espediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinean agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.

- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuari xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaiak osatuko dute “masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)”. Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.